

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

107n. Zenbakia Jorrala
1987



GURE EUSKALERRIA!

- Baserriak sendotu ta apaindu!
- Lantegiak gaurkotu
- Izadia zaindu ta txukundu!
- Gaztedia euskal giroan azi!
- Euskal-jokabideaz
buru-jabetza osoa irabazi!

EUSKEREA

ALPERRIK ETE GABILTZ?

Geure esku-artean doguz iru idazkiño edo libruzka, UZEI idazle-taldeak euzko Jaurlaritzaren babespean argitaldutakoak. Eskerrik asko emon dauskuzan abertzale adizkideari, asmu onez emon dauskuzalako, nal-ta samintasun bat geiago susmatu dogun geure biotz-barrenean, eurak arakatu ta irakurten alegindu naizenean.

Idaztiño oneik: "Medikuarekin", "azokan" eta "Udaletxean" idazpurutzat dabezala, Iztegiak eta marrazki apaiñez argitalduak dira. Eta, idaztiño orrein asiera, itzaurrea, nai-ta guk ikusi nai ez doguzan H'z ondo orniduta aurkitzen diran, egokiak dira. Gauzak eta eginkizunak izendatuz bizi da izkuntza. Orregaitik eta orretarako euskaraz ditugun oztupoak gaintu bearra argi dago, gure gizarte au euskaldundu nai ba'dogu.

Zenbait lekutan (janaridendan, medikuarenean, Udaletxean, etab.) euskaraz mintzatu al izateak berakin dakarren leku orietako gauzen euskarazko izendapena ezagutu bearra. Eta ori ba-dakigu ez dala gertatzen, zoritxarrez, ainbat eta ainbat arremanetarako lekutan.

Lenago esan dogunez, itzaurrea ez dago txarto, esaera ori bearrekoa zalako, baiña, urren irarri dituen iztegi-txuak, ainbat obeto egongo ziran Muxika'tar P. Azkue'tar R. M. edo Lopez-Mendizabal'dar Ixaka'ren iztegi marduleta-tik barriz-idatzi ba'ebezan, Orretara euskal-itzak bear diran lez euzkaraz irakurriko genduzan eta ez orain lez erdi gazte-lera ta euzkera nastuan, nai-ta jarraian gazteleraz eta prantzez "iru izkuntzatan" lez, idatzita ikusi leitekezan.

Lotsagarria benetan gure euzkera txukuna, bardingabea, beste izkuntza guztien artean bardingea, izkuntza au ikasi daben gizaki jakintsuak adierazoten daben lez, beste izkuntza batzun izkelki bat geiago ba'litz lez, nastuta ikusitea, zetan ez daukala.

UZEI taldeko orreik, ziur gera, ori baiño obeto jakin bear dabela euzkeraz idatziten, ziurki, ikasiak diralako, eta, orretarako, euzkeraz idatziteko Euzko Jaurlaritzak ordainduten dautselako. Orduan, zergaitik orrelako izkuntza erabili, orren euzkera zatarrak batez be euzko jakintzarako idaztietan? Gorroto dautsoelako Arana-Goiri'tar Sabin, Azkue eta beste ainbat euzkeltzale zintzori esker, bizi dan euzkera garbi txukunari? Siñistu eziñekoa dala esan leike baiña, alantxe dala dirudi.

Ea irurogei urte dira euzkera arloan murgilduten asi gintzazala eta, geiago eta txarto edo ondo zerbait irakurten eta idatziten arduratu gara, baiña egiz, sarritan bururatu yaku, alperrik ete gabiltzan euzkeraz idatziten, batez be bizkaieraz, gero geuk aukeratuko agintariak euzkera ondatzalleari txindiz eta adizkide lez lagundoko ba'dautsoe.

Ori bai, Euzko Jaurlaritzan, Euzko Aldundietan eta Udaletxerik geienetan euzkb abertzaleak doguz aginpidedun. Zelango abertzalea da gure izkuntza EUZKERA garbi ta txukun indarturuik nabarmenduta ikusi nai ez dauana?

Gorago esan dogunez, ainbat urte daroguz euzkera-arloan, baiña, aldi onetan baiño nastuago, zikiñago, ez da euzkera idatzi azpaldiko irurogei edo irurogei ta amar urteotan. Tamalgarri jakuz bai Aldundi, Udaletxe eta goragoko lekuetan irakurten diran iragarki bearrekoak irakurteak! Eta ori edozeiñek dakiala euzkera dala euzkotarroi nortasunik geien adierazoten dauskuna. Noiz arte bide ontatik euzkotar euzkaldun anaia? Gure euzkera txukuna erdel izkelki bat baiño besterik ez dala igarriten ez jakon arte. Orduan berandu izango da gure izkuntza galzkatzeko.

ALTUNA'tar JOSU

BIZKAIEREAREN ASTEA

50.n URTEA

Geure Errian eta geuri jazo jakuzan gauzak ez doguz aitzu bear, kaltegarriak izan ba'dira, barriro lengo arrian jo ez dagigun eta onuragarriak izan ba'dira orduko gogoia eta lana barriztu daitezaz.

Orain berrogei ta amar urte, 1937'an, ainbat gauza jazo ziran, mingarriak eta kaltegarriak geienak eta onuragarriak orduan izan ziranak be epe laburrerako, jaiotako landara barriak, Jaurlaritzaz esaterako, guda tamalgarriak ondatu ebazalako.

Orrillaren lenengo aste osoan urtero ospatzen dogun ekiñaldian, aurtan, olako jazoera batzuk gogoratuko doguz.

JAURLARITZA

Urte aretan sortu zan Jaurlaritzaz, lenengo Araudia onartua izan ondoren, itxaropenaren ezaugarri lez. Euskal-erriak lenengo Lendakaria eta lenengo jaurlaritzaz izan eban, oinkada ederra erriaren nortasuna lortzeko bidean, baiña itxaropen ori laster zapuztu eban gure betiko are-rioak.

Orduan egindako lanak eta izandako goraberak gogoratuko dauskuz gure Zubikarai'tar Augustin'ek.

GERNIKA SUTAN

Beste jazokizun negargarri bat be izan zan urte aretan: Gure Lege Zarren eta Buru-jabetzaren ezaugarri zan Gernika uriaz lerkaz apurtu ta erretea. Jazoera orren zertzeladak zeaztuko dauskuz, Gernika-aldean dan Ajangiz'ko Aurre Apraiz'tar Balendin'ek.

Batzuk urriñetik, beste batzuk urretik, asmau genduan Gernika apurtzearen eta erretearen ikareaz eta orduko zeaztasunak jakiteaz egarri aundiaz dogu. Balendin'ek asetu-ko dausku egarri au, jazokizun ori bere lekuan jarriaz.

LAUAXETA

Berrogei ta amar urte beteten dira aurtan, Gasteiz'ko Isabel Deunaren illerrian Lauaxeta olerkaria il ebela. Gai oneri buruz be berbaldi bat gertatu genduan aste orretara-

ko, baiña arrezkero omenaldi aundiago bat egiteko erabakiaz artu dabe Euskerazaintzak eta Euskerazaleak, orretarako Mungia'ko Udal-Batzaren laguntza eskatuta. Omenaldi-egun ori bagillean izango da, bera il eban eguna 25^a izan zan ezkeron, urrengo larunbatean. Orrilleko aste orretan ez da izango ba, Lauaxeta'ri buruz berbaldirik.

ARRANTZALEAK

Arrantzaleai buruz izango da beste berbaldi bat.

Bizkai'ko arrantzaleak sendo eutsi dautsoe Bizkai'ko gure euskereari eta euskerearen izkera berezi-bereziak sortu dabez, batez be Bermeo'n eta Ondarroan. Dana dala, berbaldi au ez da izango izkera orrean berezitasunak aztertzeko, arrantzaleen oiturak gogoratzeko baiño.

Gai oneri buruz Bermeo'ko gazte batek egingo dau berba. Gazteaz da bai, baiña gai oneri buruz benetan arduratua eta BERMEO ALDIZKARIA'n idaz-lan jakingarri batzuk be argitaratu dauz.

JAUNGOIKO-ZALE

Nik ez dakit gure irakurle guztiak dauken Bazkuna txalogarri onen entzuterik, baiña bai euki bear leukeela: Lan aundiaz egin eban Jaungoiko-Zale Bazkuneak gure euskerearen alde, Eleizearen ikuspegitik. Talde aundiaz izan zan eta idazle onak eta ugari batu be bai.

Entzungarriaz izango dogu itzaldi ori.

ARGITALPENAK

Ez da izan gauza erreza Euskalerrian liburuak argitaratzea, naizta aspaldion erreztasun geiago izan onetarako.

Eta irakurleak be urri izaten dira. Argitaratzea gatxa ba'da, zabaltzea ta saltzea ez da izaten errezagoa.

Baifiaz euskereaz bizirik atera gura ba'dogu, idazteaz bearezkoa da, idazteaz eta, jakifiaz, irakurteaz.

Gai oneri buruz be berbaldi bat izango dogu.

Irakurle! Alegindu zaite berbaldi oneitara etorten!

SORGIÑAK (III)

Lezo'ko Lope de Isasti abadeak, aldi aretan beste askok legez, sorginkerietan, bete betean, siñisten eban.

Iruña'ko gotzain Prudentzio Sandobal Jaunak, 1615 urtean, abade oneri sorginai buruz, zer zan egia eta zer guzurra, zeatz jakiteko lanbidea emon eutsan.

Abade ospetsu onek, eginbear oneri aal zan ondoen erantzuteko, aurretik sorgiñai buruz idatzitako jakintsuen liburu asko irakurri ebazan...

Eta bere burua bero-bero egiñik, bere azterketaren ondorio arrigarriak, guretzat idatzita itxi ebazan.

MARITXULOKO SORGIÑA

Lope de Isasti abadeak mutiko bi eta neskato bat, 10-11 urtekoak, bere etxera etorteko deitu ebazan, eta onein aitormena onangoa izan zan:

"Mutiko batek aitortu eban, nire aurrean, Maritxuloko izena eban sorgin andreak egun batean Akelarrera eroan ebala bera, eta intxaurrak emonaz esan eutsala: "zatoz neugaz eta atsegin andiak izango dozuz".

Eta gero Akelarren Deabruaren aurrean aurkeztu ebala. Deabrua aker andi baten antzekoa zala, eta mutillak Akerrari buztanpean mosu emon eutsala, eta gero sorgiñak Akerrari agopean zerbait esan eutsala, eta gero sorgiñak mutikoa ostera be, bere etxera ekarri ebala.

Arrezkero gauero Maritxuloko sorgiña mutiko onen billa etorten zala, eta oetik artu eta Akelarrera eroaten ebala, eta an beste mutiko batzuekatz batera, abar bat eskuetan ebala zapoak zaintzen ipinten ebala egun sentia argitu arte, eta eguna argitzean ostera be, bere oera ekartzen ebala.

Baita esan eban, gau baten, bera Akelarren egoala, Andra eder bat soiñeko ederrez jantzita, eurekana etorten ikusi ebala, eta Andra ori ikusiz batera besteak aren aurka biraoka asi zirala, esanaz: "or dator, lotsabako ori".

Eta mutikoak bere lagunai itandu eutsela: "Nor da andra ori?", eta oneik erantzun eutsela: "Andra Maria da", eta orduan onek mutikoai esan eutsela: "baiña zelan ekari zaitue ona engañauta?". Eta gero esan eutsela: "zatoze neugaz, eta zeuon etxera eroango zaituet".

Eta sobalda gaiñean artuta, bakotxa bere etxera eroan ebala.

AKELARRE

Baita mutiko onek esan eban Akelarren gizon eta emakume asko ikusi ebazala, aurpegiak estalduta, eta onegatik ezin izan ebazala ezagutu, eta gau osoa dantzan eta olgetan emoten ebela.

Baiña gero Maritxuloko laster il eta olan mutikoa ra jantzita egoten zirala, eta zarata moteleko pandero baten soiñuan dantzan egiten ebela, eta ango argia ui edo pikaz egindako kandelarena zala.

Baiña gero Maritxuloko laster il zan, eta olan mutikoa gatx onetatik aske gelditu zan.

Mutiko onek gauza guzti oneik bildurrez beterik autoritu ebazan, bada, berak ba-ekian deabrua bere atzetik ebi-Uela, eta berak esandakoa jakiten ba'eban zigortu egingo ebala.

BIGARREN MUTIKOAREN AUTORMENA

Bigarren mutikoari ni itanduten asi nintzanean, au lurrera luze konorte barik jausi zan, baiña gero guban bere uste osoa jarrita, onango au autortu eban: arratsalde baten Maritxulokok bera (mutikoa) sorbalda gaiñean artu, eta landa batera eroan ebala, eta jesarrita egoan txakur baten aurrean ipiñi eta gero sorgiña txakur orregaz berbaz asi eta gurtu egin ebala, eta gero ostera be sorgiñak mutikoa bere etxera ekarri.

Baita esan eban egindako guztiaz damututa egoala. Mutiko au beti ilun eta tamalez bizi da; gizon txiro baten semea da, eta eskolara dabil.

NESKATOAREN AUTORMENA

Neskak, ostera, au autortu eban:

Orain lau urte, baltzez jantzitako emakume batek, aurpegia estalduta, gauerdian Akerraren landara eroaten ebala, batzuetan teillatutik egaz eginda, beste batzuetan sorgiñaren gaiñean. Eta landan egiten ebana au zala: abar bategaz zapoak zaindu, eta gero era berean etxera etoria... Baiña damututa txarkeri onegatik negarrez eta tamalez bizi zala. Nik berba onak esan neutsazan eta" poztuta gelditu zan.

(Jarraituko_ dau)
GOIKOETXEA INAKI

SASI MAIXUKERIAK

EGIN aditz berbeak iru zeregin ditu.

1) Beste edozein berbak lez egitekoren bat azaldu: "Etxea egin dot", "Etxea erosi dot", "Etxea saldu dot".

2) Izenari geituaz aditza sortu: "Barre-egin", "Negar-egin", "Lo-egin".

3) Esaldi guztietan atal batek edo itz batek besteak baiño garrantzi andiagoa izaten dau; ta berba ori aditzaren ondoan aurreko aldetik joaten da ta itaungai edo inkiridu izena emoten joko. Aditza bera be izan leiteke esaldiko atalik garrantzitsuena eta orduan izakera ori nabarmentzeko EGIN berbea edo aditza geitzen joko lengo adizari. Ara zelan:

—Nun daukazu arako beribil eder a?

—Diru premiñan nengoan eta saldu egin neban.

—Elizaren aurrean alkar arkituko genduala esan genduan eta ez ziñan agertu.

—Agertu bai, an egon nintzan; baiña denpora askoan ez ziñan agertu ta aspertu egin nintzan zain egoten eta joan egin nintzan andik.

Iñoiz esaldiko atalik garrantzitsuena aditza izanaz gaiñera aditz ori EGIN bera izan leiteke. Orduan EGIN aditza bi bidar alkarren jarraian esaten da:

—Amak aparirik ez egiteko esan daust, etorten danian (etorri daitenean) berak egingo dabela ta, baiña ezer egiteko barik aspertuta nengoan-da egin egin dot.

—Lan asko egin bear dozu.

—Egin egin bear! (Tener que hacerlo!).

"Barre-egin", "negar-egin" eta olakoei, nai ta inkiriduak izan, ez jake jarten bigarren EGIN.

—Arratsaldean nun izan zara?

—Inun be ez; lo egin dot.

Inkiridua aditza danian EGIN sartzea bear bearrekoa da gutzat. Olakoetan EGIN sartzen ez ba'da, illun gelditzen da; beste esanai bat dauko gure belarrientzat. Olan: Saldu egin dot. — Lo he vendido.

Saldu dot. = Ya lo he vendido.

Aditza inkiridua zanean gutzat bearrekoa zan EGIN barik idazten ebela gure egunetako idazle batzuk, konturatu nintzan. Ara jasotako esaldi batzuk. Parenthesis artean esaten dot nire ustez zelan izan bear litzakezan.

"1920'en sobietarrak agindu zuten berak nagusitu baiño lenago indarkerian Errusia'k egindako itzarmenak ezereztuko zituztela" (ezereztu egingo zituztela).

"Baiña Eleizan eta Marxismoan galdu eben fedea" (galdu egin eben fedea).

"Oteiza ara igo zanetik nere Arantzazu zaletasuna aunditu dala esan leike" (aunditu egin dala).

"Estadu Batuak oraintsu aleen sal neurriak beratu ditu" (beratu egin ditu).

"Langilleak orrelako egoerarik ez dute ontzat ematen ta jaikitzen dira" (jaiki egin dira).

"Adimenaz eta naimenaz ezik ats egiñaz grazia izatzi ere zion" (izatzi ere egin zion).

Onetan dagoan desbardintasuna ikusirik, gaurko euskera maixu andi bateri itandu neutsan eta bere erantzuna auxe izan zan: onetan be beste askotan lez erria bitan banatuta egoala; erabilten zala alderdi batzutan EGIN au aztertzen diardugun arazoan, eta beste alderdi batzutan, ez zala erabilten.

Antxiña gitxi erabilten zan EGIN aitatutako zeregiñean. Orain 100, 200, 300 urtetako liburuetan nik ez dot arkitu sendogarri lez aditz izen au. Ara antxiñakoak kontu au zelan idazten eben.

Marzelino Soroa (1848-1902).-Erotu al zea gizona? (Erotu egin al zea gizona?).

Bitoriano Iraola (1841-1919).—Jo al zaitu? (Jo egin al zaitu?).

Axular (1556-1644).—Baiña enganatzen zara (Baiña engañatu egiten zara).

Pedro Migel Urruzuno (1884-1922).-; soñekoa ere ona zuen, baiña saldu du (baiña saldu egin du).

Toribio Alzaga (1861-1941).-Onetzaz aztu bearko dezu (Onetzaz aztu egin bearko dezu).

Antero Apaolaza (1845-1908).-Oso biotz txarra dezu ta lotsatzen naiz (lotsatu egiten naiz).

Lardizabal (1806-1855).—Neque ascoren ondoren iltzen ere zituen (il ere egiten zituen).

Juan Jose Mogel (1781-1849).-; bacoachac gogoratu daigun sarri ta ondo, irabazi edo galduco dogula (galdu egingo dogula).

Bartolome Madariaga (1768-1835).-Baña agirico pecatubac dira ta esan bear dira (esan egin bear dira).

Añibarro (1748-1830).-Entzuteak berak gogaituten nau (gogaitu egiten nau).

Juan Antonio Mogel (1745-1804).-Gero garija erne onduan biar da jorratu (jorratu egin biar da).

Lenago ikusi danez, batzuk EGIN au ez dabe sartzen inkiridua aditza bera danian.

Eta alderantzira be jazoten da; au da, sartu bear ez danean sartzen dabe. Ori, geienbat, euren lurraldeetan egiten ez dalako ikasi ez dabenen okerra izango da. Berez ez eben ikasiko ta gero aldizkari ta abarretan ikusi dabenean zerbait jatorra iduritu-edo, erabilli nai leukee. Baiña orretarako ondo ikasi bear da.

Ara zelan esan edo idatzi daben batzuk, nire ustez txarto: "100 milloi gastatu egin dirala elizak ondo eukiteko" (gastatu dirala).

"Ia urrango deitzen dezunean asmatu egiten dezun" (asmatzen dezun).

"Deba'ko Arte taldeak daraman lana ere gure begiz ikusi ezik, beren asmo ta ametsen berri jakiteko aukera ere izan egin genuen" (izan genuen).

"Zaldun hori SARRITAN etorri egiten da, ez dakit zertarako baiña" (SARRITAN etorten da).

EUSKERA

"Idazleak ere ahozko euskeratikoa adierazpide asko batu egiten dabe, baiña neurri baten" (asko batzen dabe).

Egia esateko, azkenengo esaldi biak ez dira ez jakin-nak, kontu oneik irakasten asi zan batenak baiño. Izan leitekete ondo esanak izatea, baiña ez dira sartzen nire belarrietan.

Aditza danean inkiridua, EGIN ia ez zala erabilten len esan dogu. Baiña asko ez ba'da be zerbait erabilten zala esan bear da, batez be ezetzko esaldietan.

Añibarro'k iru-lau bidar sartzen dau EGIN indar-emolea, baiña beti ezetzkoetan:

"aurrerantzean becatu bat biurtu eceiteco gogo sendo bat" (Eceiteco, ez eguiteco, da);

", ta artu gogo sendo bat, jausi eceiteco egun atan becatu onetan";

"; sendotuco nozula, aurrerantzean jausi eceiteco becatuan";

"beimbere Zure penac aztu ezeiteco".

Guk, ezetzkoan ez dogu EGIN ori sartzen, ezetzko esaldietan aditza bein be ez dalako inkiridua. Ez da gure belarrietarako esate modu ori.

Baiña berak Añibarro'k be beti ez darabil; iñoiz (noiz-bait) EGIN barik idazten dau, beste batzutan EGINegaz datozenen antzeko esaldiak. Ara bi:


"Eta emon nequeren bat ceure gorputzari, propositu sendoaz aurrerantzean ez jausteco";

"zucendu daizuzala nire oñac, oquer-bideetara joan ezditeceen.

Baiña danetatik politena, bitxiena, ondorengoa da; ezetzkoan EGIN bi daukaz:

"Gogo sendo bat aurrerantzean becuric eguin eceiteco

KAMIÑAZPI



LATIEGI'ri

JAUNTXUKERIA

Aspaldi ontan, ez dot ezertxo bere idatzi, bear bada, nagikeriz edo baita be baleiteke zerbait bereizkeri bat naizelako, edo...!!

Dana dala, emen nabil burubideturik zerbait idatzi-naian, eta, ona emen ba, illeroko "ZER" 105'n zenbakian, nire adizkide dan Latiegi jaunak, zelan zirikatu nauan, bere *EUZKADI: EAJ-EA* lan orrekin.

Egia esan, sarritan eukiten dot nire gogamenetan, guk edo gu, duintasunekuak izan geinken, edo, gure zorigaitzak, zer dala ta jarraitzen dauan gure lepoetan.

Euzkalduna, eskubidetutzen danean, geienetan, burura igoten jako nagusikeria ta olan etortzen dira etortzen diranak.

Nire ustez ba, euzkaldun izakera, ez da Arjentina'n esaten dan añako lez "*palabra de vasco*" baizen, gure kondairak agertzen dau beti gu, burrukan gagozala, batez bere, jauntxokeriko norkeriagaz.

Olan galdu doguz ba Latiegi jaunak esaten dauan lez, lurralde zabal eder asko, batez bere Akitania'ko itxas-ertz galantak, ba, "Golfo de Vizcaya" lez esagutzen dan itxaso guztia.

Euzkaldun izan zalako dator izen ori. Orren lez, Huesca, Errijoja ta abar ta abar, eta, arriskun gagoz beste lurraldeak be galtzeko, Naparru berbera.

IRUÑA'KO BATZARRA

EUZKADI: EAJ-EA lan ortan, iru zatitan argitaratzen dozu zure lana; "*EL BATUA*"*rm* asmaketa; *ALDERDIAREN ZATIKETA* eta *EUZKO ALKARTASUNA*'ren *JAIOTZA*; Iru zati orrekin gaia, ontzat arturik, nik, zerbait geiago be esan nai neuke.

Gure gaitza, nire ustez, *IRUÑA - ANAITASUNA*'n egin zan zoritzarreko batzar nagusitik dator.

Batzar ori asikerako, bizkorregi egin zan, ez geunkan ez batzokirik, ez genkian nor, nor zan, abertzaletasuna baño "*ANTI-FRANQUISMO*"*tasun* geiagoko giroan gengoan, kristautasuna baño ezkertasun geiagoko giroa egoan,y..E'.L.kidetasuna, oso gitxi ezagutzen zan, Alderdi'a *EUZKO ALDERDIJELTZALE* lez baño *P.N.V.* lez ezagunagoa zan, abertzaleak ezkerakin nastuta kalerik txaide ibiltzen ziran, gutarrak, Franco'ren aurka aurrez-aurre ebizan bitartean, ezkerria, bere *Revolucion Culturala* oñarritzen saiatzen zan, gure gazte asko, abertzale lez espetxeratuak izan arren, komunista egin ziran abar eta abar.

IRUNA - ANAITASUNA ortako ponentzi, txosten edo erabagia, oso kaltegarrikoa izan da gure *ALDERDIAREN ZAT* ba, egun ortan egin ziran asmo-azterpenak, ezker arauak baño ez ziran, batez be, *JA UNGOIKUA* ta *LEGE-ZARRA J.E.L.* lez jarraitu ala ez.

Baita be esan ziran "*sobre la explotación del hombre por el hombre*" ta beste anverzako ezker-asmoak.

Bai, Latiegi jauna, gure gaitz madarikatua *ANAITASUNA*'tik dator, or erabagi zalako ate aundiak zabaldu bear zirala eta, sartu ziran danetarikoak, "*Poesia al Baztan*" etik "Social Democracia"raño, sasi "*abertzale*" bada ezpadako guztiak.

Garai artako gure burukideak esaten eben lez "vascos recuperables".

JELTZALETASUNA

EUZKO ALDERDI JELTZALE'ak, bene benetako *J.E.-L.*tzaletasuna egizatzen ez dauan bitartean, gitxien uste danean, eukiko dau beste gorabera bat.

Bearezkoa da ba, gure aita Sabin'en gogamenaren bidetik jarraitzea ta, lotsa barik, lau axetara deadarkatu ta, bear dan lez zabaldu *JAUNGOIKUA* eta *LAGI-ZARRA*'ren araua.

Aita Sabin'en nortasuna, lotsa barik erabili bear dogu ta, ez noizean bein aitamendu, ba lotsagarria da, aita Sabin'en azkenengo bere 122 gn, urtegun zoragarria ain isilik eta igarri barik joatea.

Sabin maitiak, ziur nago parkatuko dauskula, baña, guk zer?...!! merezi al dogu asketsi? Sabin...!!

GORRI

BARREGAIK

ZEIN ASTOAGO

Periko Fortuna makurra zan. Periko Fortuna astoa dogu: asto-astoa izan be. Oto eta bere Periko Fortunak urunetan joan bear eben errotara.

Errotetan beti izanten da zubiren bat. Zubi azpitik ura. Errota-Txiki'n be alatxe egoan eta errotatik uruna ekarriko ba'zan, zubitik pasa bear nai ta nai ez.

Egun artan, ordea, ego-aizeak jota edo, Periko Fortuna ez zala zubitik pasako. Oto'k baietz, pasako ebala. Eztabaida latza zubitxoaren ertz batean.

— Tok! Pasaadi eu-iñoan astoak.

— Pasa bearko dok! Arre, arre, arre...!

Arre bakoitzeko Perikoren bizkarra berotzen eban Oto'k makillaka. Baiña, Periko Fortuna makurgaitza izan eta ez eban ezelan be mogitzen bere artatik.

Makillakada bakoitzeko, Periko sendoago ezetzean.

—Enauk, ba, teman irabaziko. Oraintxe ikusiko joguk zein dan astoago...!

Sartu da Oto astoaren tripapean, sorbaldan astoa artu eta tapa, tapa or doa beste alderaiño.

—Neri Periko Fortunak ezertan irabazi...? Ez orixe- Aupa, neu kanpeon!

ZORIONAK

Andra Joxeparen lagun bateri aita il jako Donostian. Topo egin dau andre orrekin Otok, tabernatik urten eta gero. Ardoaren alegantzia dau barruan; baiña, oso kunplutua izanik, bere samiaña agertu nai dautso!

—Jakin dot aita il jatzula!

—Bai, alan da. Min-biziak artuta bere menpean, il jaku giza-joa!

—Bai, ba, ortarako jaijo giñan, iltzeko. Zer egingo dozu? Tokatzen jakonan tokatzen jako, eta abar, eta abar.

Azkenean eskua emoten dautso esanez:

—Zorionak, zorionak.

ANES J

IZEN POLITA

IZEN POLITA

Joan da urteko udan izan zan:

Nire erriko merkatuan, saltzaile batek bere ondoko andra saltzaile biri auxe esan eutsen:

-AINOA, ¿en donde lleva la H?

—Entre la A y la I— erantzun eban bizkor batak.

—Si: entre las dos vocales—. Geitu eban arin bigarreneak.

Gizon a "AHINOA" ori grabatzera joiala ikusirik, euron artean esku artu ta neure hatxologia jakintza agertzeko nengoela, obeto uste izanik isildu egin nintzan. Izan be, iñork ez eustan hatxetegi aretarako kandelarik emon. Iru saltzaileok "ADOS" egozan eta domiña edo pultsera aren jabea be, ez jakin zelango "AINOA" ren eritxiko izango zan.

Egun bi barru, DEIA izparringi berean, "AINOA" izen ori leku bitan agertu zan eta bakoitzean, H'a leku diferenteetan sartuta etorren: "HAINOA" ta "AINHOA". Eta andik illa batzuetara, aurtan, "Lauaxeta" ikas-tolarean aldizkariak, bere "O" zenbakian, "AHINOA", olantxe dakarrela ikusi neban: gure merkatuko modara.

Modak moda, Lapurdi'ko erri xarmantaren izena lenengoz idatzia, 1238'an agertzen ei da ta H barik: AYN OA. Gaur idazten danez, AINH OA, geroago 1264'an agertzen ei da.

Ori olan, urte batzuk dala, Aynhoa'n izan nintzanean, bertako eleiz arduradunak, AYN OA izena ez dala ezarri bear esan euskun; ARANTZA ipini bear dala. Aynoa'ko Ama Birjiña barik, Arantzazuko Ama Birjiña dala ta.

Eritxiak eritxi, Ainoa izen politak gure artean jarraitu egingo dau eta geien baten, H'gaz idatzia ziurretik: Ipar Euzkadi'tik jatorkulako ta gaiñera H orrek euskereari dotoretasuna emon eta... atsa, korta usaiña kentzen dautsolako edo. Ze, H'a gustau egin da. Eta txarrena, euske-reak iñondik iñorako ardurarik emoten ez dautsoenak, gaurko nire irurok lez, H'ak arduratzen dituala: S ta Z ren idearik ez daukienak be, zelan edo alan sartu egin bear Umeek be, euron erdi euskeran: "jarraitzalea" H dago!

Eta alan da guzti be, goitik bera ezarri egin bear: liburu testuek laguntzarik ez H'a sartu ezik; eta gero, ori ez dala egia.

BELAUSTEGOITIA'tar MAITANE'k

Z E R

**Zer zara, zu, ZER euskal gogoa
ama lurretik sortua,
lurraren gatza zugan daukazu
seme onak eratua;
zure ametsa ez da besterik
argiz janzte burua,
t'erri eder bat zaindu oiñean
jakituriz ormidua.**

**Zure aldeko jende leialak
zaindu nai deutsu bizia,
zure bitartez orbiztu dedin
asaben jokabidia;
jakituria eta zentzuna
dira euskaldun argia,
bide ortatik urten ezker
ez da euskaldun erria.**

Euskera zara gure argia
alan baita gure-egia,
zure altzoan dozu maitia
gure bizitza aria;
zure bularrez artu genduan
euzkotar dan arnasia,
ain zara eder, ain jakituna
euzko jatorriz urria.

**Zure ederrez ez naz asperten
ez eta ere arritzen,
zure mendiak ain dira eder
gure gogoak zoratzen;
gure arkaltzak eta arruek
berez dira izketatzen,
euzko buruak eta biotzak
ortik izkuntza urretzen.**

PAULIN

EMON ERUAMENA!

Oi dan lez, nago itxarturik.
Illunak inguruan,
Neure aurrian, gau luzia,
^Eguantza noz geugaz?
Alan ta be, enago urduri
Jauna da beti nigaz.
Baltza arria, iñurri baltza,
baltza gaua, benetan;
Zuk ikusten dozu, Jauna,
Zuk, aren ardurea.

Munduan ^zenbat geixoak
min-lariz itxartuta?
Arek baño, obeto nago
orregaitik, nik itza.
Zuk emonda gertakerak
dan-danak, gure onurak.
Eskarrak zeuri, Jaun ori.
jEmon eruamena!

UTARSUS

NONDIK NORA "BETIRAKO"?

Iñon eta iñoiz entzun ez dodan berbea entzun neban leengoan batzar baten, birritan entzun be: *betirako* = para siempre.

Batzar-ostean, izlariagaz bat egiñik, auxe itandu neutan:

—Erderazko *para siempre*, zelan esango zeuke zuk euskeraz?

—Para siempre? Betiko.

—Zelan esan dozu, ba, birritan *betirakol*

Eta antxiñako beste arek erantzun ebanez erantzun eustan:

—Liburuak ipinten yok...

Entzuleak agoa zabalik geratu ziran, urrean, berba ori entzutean...

Izan bere, Azkue'k, bere "Gipuzkera Osotua" liburuan (83 orri.), auxe diño: "*121.rako* en vez de *ko*. Solecismo nunca oído y solo leído en Mendiburu (Otoitz, II, 193-21): galdua naz (sic) ni beti ta *betirako* por betiko para siempre. "Para" con vocablos de lugar y aun con vocablos de tiempo, pero comunes, capaces de recibir artículos, se dice siempre *rako*. Con vocablos temporales propios siempre *ko*. *Etixerako* para casa, *goizerako* para la mañana, *egungo* para hoy y *egunerako* para el día, *entzuteko* para oír.

Este solecismo de *betirako* se registra también en Lizarraga de Elkano. En su traducción del Evangelio de San Juan, VI, 54, se lee: jaten duenak ene aragia, ta edaten ene odola, du bizitza *betirakoa*."

Bizkai'ko erriren bate(ta)n *betirako* erabilten entzun ba'dozu, irakurle, jakiñerazo egizu, mesedez, ZER aldizkari onetan. Orain esaten denez, ori be "posible" izango litzake, "posibilitate"-barruan dago-ta.

MEMAIA

ZUBIKARAI-TAR AGUSTIN

Idazle ta gizon, Zubikarai-tar Augustin ainbeste idaz-lan jakingarriren sortzaille, ekintzatua beti, burutsu ta beargin, kresal usaindun euskeraren biziratzaille.

Zure lanak Bizkai'ko itsaso bazterraren senezko amaika aize-joeraz ondutako emaitzak dira, benetako maitasunaren egintzapenak, Euskalerraren onerako.

Bizkaiera ederra landu, osa daroazu egunik egun, egokiro, ezarriz biotza antzerkiz, elebarriz, olerkiz, dana giartsu.

Bizitz arabera, ipar eta mendebalez, lau aizetara eda izan da zure itza betikoz oñarritua ondarrutar kresalez.

MUNIATEGI-tar SABIN

Donostia 1984-V-28

INGUMA

Goizaren barruz, orra loratxu bat dirudin inguma pinpiriña!
Ederturik alorra nora oa maitemin, mezulari sorgiña?

Zuri, baltz, nabar, gorri...
Oi, zu, berein margodun inguma lorakari, ederrik ta bitxi dakusguna ingurun, euzkiaren albistari!

Udabarri goizetan loraz-lora, panpoxa, zelai ta mendietan goiberatzen danean ain da polit airosa!

Jarrita dagonean egotxuak batuta lora baten ganean...
jEz al dauka, itxita, irakurleak gogoz, orri-alde gurean irakur izandako liburu baten antza?

MUNIATEGI-tar SABIN

UNERIK EDERRENA

Ausia da goiko aitzetan egunsentiaren ontzia, ausia da milla zatitan bere leyarrezko jantzia.

Durrundi gorrixkak gora ala izar birrinduen dizdira beera ba dirudi dala gure baratzaren erdira.

Adarretan dakar aizeak abesti barrien argia t'urre-lurrunetan maiteak ezti kolorez aragia.

Ba da bai gure abaroan edari legun ta urrerik. Maitasun ta zurrut aroan gu biok nun une oberik?

Lilizko txoletan bildu dau ardo orien apar zuria. Gozo goitikoan zuku au egun barriari ixuria.

Berenetik nire agora datorkidaz mozkorraldiak, kutsuz betez, eguzki gora, bion arteko eguerdiak.

Ekuzki galdatan bi ago biekin bakar bat egiña; maitasun larregian dago gure bion oben bardiña.

A. BIDAGUREN

OPORRAK ATXAKI

OPORRAK ATXAKI

Lanez nekatu dan gorputzak atsedena eskatzen. Buruko min askoz ta zeregin arduratsuz bizi danak, bear-bearrezko dauala dirudi egun batzuetako atsedena-aldia. Leen etzan ortarako oitura jakiñik; gaur, barriz, edozeiñek eskatzen dau soin-atsedena, egun luzeetakoa sarri. Baita aibeste nekatu ez danak be.

Nik neuk, liburu artean neure bizia erre dodanarren, eta egokitasuna izan, ez dot iñoiz olako asmorik izan ez bete, egun bat edo bireko jostaldiren bat ezik. Lanari ekin barik egonak goibela dakarst geienbat. Olan nagoanean, barruak dei: "A ta bestea daukazuz egiteko". Eta kezka orrez bizi baiño, nik lanari ekin gurago.

Noizik bein, alan be... Eta adiskide miñen naia egiteko beti gertu, egin izan ditut ibillaldi ez laburrak, euskal-lur geiñez ia beti. Aurten, esate baterako, emona naz iru egun ezetariko lani oratu barik: opor-atxakiz atsedena gozotan. Egia, iru egunez bakar-bakarrik; baiña atsedena alai gozoa gorputzari emonez. Eta, zartzaroen beintzat, oporrek zer diran ikasiz.

Naiz-ta batzuk, lotsa galduagoak, aldia pasa, orpoak azkar, nik errazoi bat nai izaten dot etxetik alde egiteko. Iru egun oneitako ibillaldian be izan dot zergaitik urtena: lemoar senar-emazte kutun biri lagun egiñez gain, joan dan illaren 6 ta 7'an Xalbador bertsolariaren omenez Urepel'en egin ziran ospakizunetan esku artu. Etzan asmo suster bakoa: atsegin jataz bertsoak, eta neure bizitzako unerik gozoenak bertso ta olerki artean emona naz, euskal bertso ta koplara artean ain zuzen ba.

Iraillaren seian, bada, goizeko bederatziz-bederatzietan, Gastetz'tik Iruña'rantza giñoazan ni ta nire adiskide senar-emazteak. Zapatu a zalako edo, Barazar aldean etzan oi lako eragozpenik, bide zabal, nasai, oztopo ta koska bakoa baiño; ez aibesteko erosotasunik Araba eta napartar bitxabaletan. Noain'dik eskumera artuz, Karraskal, Tafalla ta Olite -uri baketsu ederrak— atzera itxirik, Frutos'en ezkerretik artu ta Zargaztelu'tik zear Oliba'n gagoz. Amabiak jota dagoz. Eguraldi eder, eguzkitsua.

Nik lendik be, iru bat aldiz, egona nozu toki atsegingarri onetan. Eleizaratu gara: eguerdiko Ordua errezatzen diardue emengo lekaide zistertarrak, urte gitxi barru gure Ziarratza'ra be —batzuk beintzat— etorriko diranak. Kanta dotorej ari dira. Naikoa jente arrotz, areikaz batean, errezetan. Onein artean, or gure Gotzain-laguntzaille J. M. Uriarte ta nire lengusu markina-rrak, ezkontuta Donostia'n bizi diranak, euren umetxoakaz. Oso txeratsu agurtu ditut gero. Berton bazkaldu dogu. Turista naikoa dabil.

Latz joten eguzkiak. Iru t'erdiak. Oliba'ko goi-giro gartsuari agur esanik, Zargaztelu'ra goaz akeit artzera. Ondoren, Kaseda'tik zear, Zangotza dogu aurrez aurre. Eta 8 kilometrorra Xabier, mixiolari jatorraren sendikoen gaztelu zarra: otoitz dagigu bertako eleizan, euskaldunok bat izan gaitzean, bai fedean eta bai aberrian. Erbestetar kotxez beterik dago. Zugatz ugari, orlegi; baratzak milla kolorezko loraz; txoriak kantari ta ingurua zerutar kutsuz blei-blei. Bizi-naiaren ederra!

Yesa, bere urmael luze dirdaitsuz; Leire goian adi-erazle ta sarkor. Gu zingira ertzez suge iduri doan bitxabalez bizkor; or burgi ta Erronkari'rako bidea ezkerretik. Ez dauku ardura, gau-jomuga Isaba dogun arren. Aurrera goaz eta Verdun'i bira egiñik, Antso aranerako bidean jarri gara. Errekarte, menditsu, idor, basati-basatia. Antso erritxo, troka gaineko mendimagalari erime itsatsia; an bekoz beko Garde'tik datorren bide

estua. Erri polita Antso, kaleta etxe, garbi: euskal kutsua dauko, euskal abizen askorekin; jentea zapatuz ate aurretan atsedentsu.

Gu ibiltari, arkaitz-mokor ikaragarien artetik dabilen eta urez urri daan errekerari jarraituz, Belartza ta Belagua'rantza, ots, ipar-aldera. Belartza'n askari-legea dagigu, zazpirak dirala; toki atsegifia, piñu zuriz bete. Isaba'n gara, Tapia ostatuan. Bapo apaldu ta lotara, biar goizetik ibilli bearra daukagu-ta. Gauaro bigun-ozkirria. Gela txukunean, ni ta nire lagunak, Lizardi'ren "Oia" olerkia gogoratuz, loak beingoan menderatu gaitu.

* * *

Iraillaren 7. Igandea. Zortzirak eta laurenetan gosaltzen gagoz. Eta luzatu bage, kotxe barrura, Urepel urrin samar daukagu-ta. Goiz-aro atsegifia; bideak ixil Isaba ta Uzta-rrutz'en; mendi-gaiñak mosutu naikir eguzkia, txori batzuk kantuz, belak, gau-erronda egin ondoren lez, lats-ondo ego-narratz; piñu-arlo galantak alde bietatik. Lasa-gaintxo, Itzaltsu, Otxagabia, Ezkarrotz, Jaurrieta, Abaurre-goiko ta Beko, Garaioa, Aribe, Garralda, Auritz-berri, Mezkiritz eta abar atzean lagarik. Erro aranean gara. Zubiri'n eskumatik artu dogu, Iruña'rakoa ezkerrean itxiaz; Eugi erritxo, zingira aundiz eta etxeño barri politex apain be apain...

Aurrera ta aurrera, nai leiatsu batek bultzatuta. Olan bideak gitxiago nekutzen. Esan dagidan au be: andra-gizonak (Demetri ta Libe) berebil zuzentzaille ditut biak, eta txandaka dagie lan; orain Demetri'k daroa ta ez da gogaitzen, ez eskuz ez oiñez. Inguruzoko ta makur-unez josia bidea, aretx, pago, leizar ta piñu zuri sail ikaragariz albo bietako pendizak; noizik bein etxetsaxoren bat, eta tarrantaren bat ibilli nagian; errekatxo bat eskumaz, ur gitxigaz. Kerizpe guria, egunaren aita ostoz artez bere erraiñu biziak bialduten alegiñak alegin saiatu arren. Kotxe-barne, autu gozo jakingarria, bertsolari buruzkoa geienbat.

Aurrez aurre, urrun samar, mendi artean sakon zabal-une neurri bakoa. Ementxe dogu antza Urepel. Beerantza ekiniez, bordak eta etxe zuriak ainbat eta ainbat. Or, bide ertzean, dotore, eguzkita begira, baseri alaia, atarian aita-semeak atzoko lanez izketan diarduenakaz; gu itaunka: "ta... Urepek urbil al dugu?" Eta areik erantzun: "Segi beerantza, ta laister arkituko duzute". Guk barriro be: "Gu aren omenaldira goaz". Eta areik: "Bai, mendi auetan ibiltzen zitzaugun bertsolari aundi ura, artzaintzan".

Eta azkenez Urepel'en. Amaiak ogei gitxiago nire orduan. Erri-erdira orduko bide-ertzean kotxea egokitu ta ba-goaz eleizarantz; kantuz diardue ezti baizen ozenki. Nik nezla gero esango dodala-ta, alboko illerrira okertu gara: kanposantu, Frantzia'n geienak lez, txukun-txukun jaintzia. Euskaldun familiarak ia geienak; or Xalbador'ena be, eta muru-makur, otoitz labor gartsua osotu dogu aren oroimenez, eta urepeldar guztien alderako. Mezea amaiu aurretik oindiño, eliz-ate aurre-aurrean dagoan oroigallua miretsi nai izan dogu: emen dagoz, euskera ederrez idatziak, Frantzi'ko gerra bietan (1914-18 taazkenengoan) jausitako urepeldar gudari gazteen izenak. Samifiez irakurri ditugu.

Amaitu da meza nagusia ta nik beingoan emon dot neurea, jauretze dotore, azi ta interesgarri ontako edertasunak miretsiz. Geiago luzatu bage, frontoi aurreko plazara. Egitarauari jarraituz, asi da omenaldia: agertarazo dabe Xalbador'i eskiniñitako

arri gorritzakako monumentu txanbelin bat, erriak jaso, ta bertatik itzaldiak eguzki galdapean; izlariak, Etxebarren andere alkatea, Kanblong Kultur Etxeko burua, Mitxel Itzaina, Euskal-zaleen Biltzarreko lendakaria ta Jose Mari Aranalde gipuzkoarra; gozo ta labur lau izlariak. Ondoren, dantzariak eta dultzaiña-jotzailleak.

Gero, bazkaria frontoian eta inguruko jatetxeetan. Euskal-dunok oitura dogunez jan-gura ta umore onez gatz-ozpindia. Noizik bein, entzun oi ziran barne-oiu banaka batzuk barne-gozotasuna adierazo nairik. Erromeritik etxerakoan lez edo. Ederki, erriko bertsolari olerkari aundiaren omenaldia ospatzen zan, ondo egozan beraz biotz-asazkaldi orreik. Amar urte Xalbador il zala, orduan be omenaldi eguna: bazkari eder ondoren, kanpora urtenik, bere erriko, kale, etxe, eleiza, mendi, zugatz eta beste olerki-gai bizi guztiei begira, ondoezik jausi ta il zaneko egun gomutagarria. Au gogorazoz sentikorragoa zan giroa, bai eguraldia eta bai bazkaldarrena.

Milla gauza dakarsku gogora. Euskal literaturak izan dauz an inguruan be gizaseme azkar eta idazle fiñak; orrein artekoa dogu Xalbador, euskal odolaren "mintzoa" errian eta erriatik kanpo zabaltzen bertsolari ibillia. Xalbador etzan -bere semeak diñosku- Urepele'ko mendi ta borda ta zelaietan artzain bizi: "bere ordurik geienak bertsolari errietan barna eman oi zitun". Eta etxean, irakurri ta idazten: bertsolari jaihoa zan baiña berezko jita orri lagundu egin eutsan, irakurri ta idatziz. Or lekuko: "Odolaren mintzoa". Ferdinand Aire'k berton abesten dauz erria, bakea, justizia, maitasuna, Jainkoa, euskera, gure gizonak, gure bertsolariak: "Irriaren giltza" diñotso Mattin'i.

* * *

Bazkal osteko bertso ekiñaldia, oso atsegiña izan jakun. Janaldia amaitu-ala, mai ta jarlekuak arat-onat erabilli ta egokiturik, erriko frontoi zabala jentez bete-bete egin zan. Ni neure barruan pentsalari, onela esanik: "Jente guzti au, zek deituta ete datorkigu?" Xalbador'en olerki-arnasak eraginda? Bertsozaletasunak aratu ete? Bion zirikadea genduan, ziur asko. Dana dala, Jesus eta amen baten inguru guztiak ormidu jakuzan jentez, eta geienak ziran gazteak. Iragarria zanez, arratsaldeko lau ta erdiak ziran aparau egiñik. Eta or oltza gaiñean bertsolari mordoa; zazpi guztiz Mixel Itzana'ren zuzendaritzapean: *Lizaso*, euskal erriko txapelduna; *Lopategi*, Anoeta'ko saioan bigarren geratu zana; *Sarasua*, au be finalista; *Arantza Loidi*, 19 urteko neska bertsolaria; *Xanpun*, *Ezkonda* ta *Mixel Xalbador*, omen-duaren seme bertsolaria, irurok ondo ezagunak. Seireun entzule ei giñan aurrean; nik uste geiago giñala. Baiña bego.

Asteko, saioa asteko, aurre-gertakari barri bat, txalogarria bene-benetan: Donibane Garazi'ko ikastolan bertsolaritza ikasten diarduen sei neskato-mutiko aurreratu dira bakotzak bere estrofa mikrofonu aurrean abesturik. Gaztetxoan poza ta ikus-entzuleen esku-zarta samur beroak! Irakatsi ona antzeko ekiñaldi batzuen asierarako be.

Ondoren, or esandako sei bertsolariak. Eta une onetan niri buruak emon oraintxe irakurri dodan au: "Iparraldean ez da bertso saiorik egiten hegoaldeko bertsolariarik gabe, gauza bera erran ote daiteke hegoaldeaz? Gure euskara ez dela ulertzen hor? Guk zurea bezala, entzutearen bortxaz ikasten dugu eta hola egiten Euskadi batua". Zentzun aundiko egia.ANGO ta

emengo izketa ez dala ulertzen eta abar, zentzun bako atxakiak dituzu: Xalbador'i eskeiñitako omen-egunean iñor be etzan gelditu bata besteari ezer ulertu barik, bertsolariaren ekiñaldian batez be.

Itzaina'k egin eban gai-jartzaille, egoki ta seriocki. Onetan, diferentzi onez oartu nintzan ni: emen Eleizea ta eliz-gizonak beztuteko gaiak eurrez izan oi dira, naiz-ta gaur ori be modatik joana izan; an ez, ez eben olakorik aitatu. Ba-ditugu beste gauza asko, sorgiñak ziñez, jenteari biotz azpian kili-kili eragin oi dautsenak. Bertso-jartzaillea zurra ta jakina ta benetako euskalduna bada orretan, zorrotz jalgiko da bertsolariaren irudimen-frutua.

Gaur-egunean, eguneroko, aldizkari, telebista ta irrati dirala bide, jenteak munduko albista ta barri guztiak batzen ditu. Onako zer asko astindu zan saio aretan. Xanpun, esaterako, Reagan genduan eta Gaddafi Lizaso, eta bertsolari bi onein esan zorrotzak bizi-bizi txalotu zituan erriak. Ezponda, Miarritz'eko eleiz atean eskale Lopategi, Gorrotxategi oporretan; ez zituan txalo makalak bereganatu Arantza'k, Ezponda ta Gorrotxategirekin egindako jardunaldian. Sarasua ta Mixel Xalbador, bardintsu. Azken onek, amaitzeko, bere aitari eskeiñi eutsozan bertso samur, sakon, sentikorrak.

Labur: jaialdi eder-ederra. Jentea pozik. Kostata urten genduan frontoitik. Oni zorion, ari agur, besteari eskua luzatu... Emen agurtu genduzan, bigarrenez, Itzaina, Aranalde, Etxenike, J. Legarreta, Xalbador semea, Aita Zabala, bertsolariak... Egia esan, Bizkaititik eta Gipuzkoa'tik etzan jente asko. Zelan dakizu? Kotxeen matrikulak ez dabe ziririk sartzen. Napartarrak, naikoa. Eta bertakoak aunitz! Eta jente gaztea, aunitz, aunitz! txeetasun eta zertzelada au be bitxia gaurko: senar-emazte asko ziran gure inguruan, euren iru umetxo ezker-eskuma ebezala, bertsolariak zoli entzuten.


Guk, zazpirak jota, Urepele'ri agur ezta esanik, Aldude, Baigorri, Banka, Bidarra'tik zear Donibane Garazi'rako bidea artu genduan. Gautu orduko Luzaide'n adiskide batzuk ikusi bear genduzan, emen apaldu ta lo egiñik. Goiz-alderantz, mendi arte oneitako pendiz eta arkaitz-arte —beñiolako euskaldunak emetik frantses gudaroztea igarotean lez— sekulako arrabotsa sortu ta erabilli eben trumoiak eta euri-jasak. Astelean, bederattziak ziran, urreko mojatxoak "Gure Aita"-ren eresi-doiñu gozoa gure arrotzetxeraiño bialtzen ebenean.

* * *

Opor-aldiari berea emoteko, egun bat falta jakun. Beraz, Ipar-euskal lurretara. Amarrak zirala, Luzaide ta Arnegi atzera itziz, Garazi'n gagoz. Emen azoka beti astelenez; baita gaur be, jakifia. Milla gauza daukaguz salgai, maitxoetan eta toldepetan polito ta dotore jarrita. Jenterik bada, ara ta ona, bide ta kale-ertzez; emen inguruetako baserriarrak dira geienak. Asko ta asko euskeraz mintzatzen dira; gu onei zirika, zelako euskereai daben jakin nairik. Barriro diñot, euskera pizkat dakianarentzat ez dago uste dan beste diferentzi. Jar bei bakotzak ardura apur bat euskera irakurri ta ikasiz.

Ederra dozu ipar euskal erria. Gu, Larzabal'dik, Maule eskumara lagaz, Donapalau uri politetik zear, Bidatxe'tik Beskoitze'ra goaz bazkaltzera, ondoren Beloke'n Iratzeder ikusteko. Ori egiñik, Baiona, Miarritz, Ondarribi'tik, etxera.

Aita ONAINDIA



SARIKETE

LUKASEN ERAKUTSI ONA (3n. SARIA)

Nok ez dau ezagutu Lukas Ulegorria, langilleetan langilleena?

Berba oneek esanik asi eban aitita Batxik, neguko gau luze aretan sutondoko ipuiña. Aititari adi adi, an egozan bost ume, neska mutillak, afaritarako artozopea egiteko, laratzean topiña galanta esnez beterik egoanean. Aitita Batxi sutondoko zizailluan jesarrita, umeak barriz zurezko aulki txikietan. Eta umerik koskorrenak bere abiea aititaren belaun ganean egin ebala zirudian. Ume soster oneri Paule eritxon, eta aititak pipea artzen ziarduan, aoa eta sudurzilloak keez beteten jakozan eta eztulka asten zan arren, ez eukan bere jesarleku azur ganekoa beste ifiori trukegiteko. Alperrik iñok Pauletxuri aolkurik emon. Paule aititagaz beti.

—Lukas lagun askok ezagutu eben —jarraitu eban aititak—; nik neuk be bai.

—Zelakoa zan, aitita, zelakoa?

—Zelakoa zan? Txikia baiña gogorra, arako Arratiako zekorren antzekoa. Gizon bardingoa baiño apur bat apalagoa, txaparrotea, aragi andi bakoa.

—Aragia zer, aitita?

—Ba... koipe gitxi eukala Lukasen gorputzak. Txikia ta lerdana zan. Tripa leua, gantzik bakoa. Ez uste izan gero, gantzik bakoa zanik.

-Gatza?

—Pertsonen gatza ganorea da, jasa, trebetasuna. Eta Lukasek ba eban orrelako doerik. Berbako gizona, apaltasuna zan aren ezaugarri nagusia. Ba dira ume indartsu ta jasekoak be.

Une onetan, neska mutikoek euren arteko Manutxuri begiratu eutsen, onek be, txikia izan arren, mutiko indartsuaren entzutea ebalako.

Manuk, serio samar, ixilik eta geldirik egon eitezala jakiñerazo eutsen ume enparauei, atzamarra ao aurrean jarriaz, eta beste eskua zabal zabalik, beeruntz beeruntz eroaten ebala. Orraitiño, zan eskasean bere bularra aizez beteten ebala zirudian.

Aitita be, Manuri begira jarri zen eta bere biloba ori morroskoagoa begitandu jakon.

—Bai, Manutxu be —jarraitu eban aititak— txikia izan arren...

Eta soiñuari oratu ta aintzifiako kanta au abestu eban:

"Txikia izan arren
izan lei sendoa;
gora gure erriko
tanbolinterua"...

Umeak barre algarea egin eben, barriketa utsa zana, soiñu ta kanta alai biurtu zanean.

—Baiña indar utsa, indarra besterik bage, arrokeria lez erakutsi gura izatea ez da bidezko, ez da zuzena. Manutxu ez da bapere artoa, eta ori ondo! Ba... esaten niarduan Lukas ori, pertsona batzuen ustez, bazterrean izteko gizon apala zalakoan edo, aintzat artzea be, merezi ez ebana zalakoan edo... an egoan eta an ebillen. Izan be, bere burua erakuste zalea ez izan, eta bere nortasuna gordeta lez eukala esan giñei.

—Nortasuna zer da, aitita?

—Nortasuna baxotza bere izatean dago. Nortasuna... danok dogula esan giñei. Baiña askori ukatu egiten jake. Gizonezko batek edo andrazko batek besteen aurrean erakusteko dauan izakera berezia, orixe da nortasuna. Eta nortasuna daukanari lotsea, errespetua, begiramena izaten jake.

-Eta bildurrik, aitita?

—Bildurra be, sartzen dabe iñogan, nortasun gogorreko diranak. Bai, besteen kolkoetan. Baiña Lukas apala, bakezalea ta ixilla zalako, nortasunik bakoa zala uste eben batzuk. Gizajoa zala, ume izatetik artean urten ez ebana.

—Gure errian ba da iñor nortasunekorik?

-Bai, mutil. Berbarako, Zoilo Lazurtegi. Ezagutzen al dozue? Ba, Zoilo ori, uriko alkate izana da, iru bidar ganera. Zer esan gura dau orrek? Erritarrak estimadu euki izan dabela.

—Aitita, gizon guztiak izaten al dira alkate?

Aititak irribarrea egin eban, eta aoan eukan pipan tabaku barria sartu, eta su emon.

—Gizon batzuk ez dabe kargurik gura izaten. Baiña karguak gitxi izaten dira, eta gizonak geiago. Orretara ezkerro, batzuk, kargua gura izan arren, ez dabe sarritan edo iñoiz be, kargurik lortu.

—Eta zu, aitita, alkate...?

SARIKETE

—Ni, txotxo, ez naz alkate iñoiz izan, baiña epaille birritan izan naz.

Neskato mutikoez alkarri begiratu eutsen, pozez edo, arrotasunez edo.

—Eta, zer da ori, aitita?

—Begitu. Alkateak erriko ondasunak, erriarenak diran gauza, diru, kale, eskola, argiak, garbibideak eta abar zaindu bear ditu. Eta epailleak, ostera, batzuen eta besteen artean sortzen diran eztabaidak, eskubideak banandu eta zuzendu bearra izaten dau. Eta karguetan jarduteko, nor-tasuna bear izaten da; osterantzean, kittu.

—Eta Lukas...

—Lukas, esan deutsuedan lez, ez zan nagusi antzeko edo kargua beraganduteko kezka bizi. Orraitiño, bere apaltasunean erakutsi ona emon eban, bapere arrokeriarik azaltzeke. Erakutsi ona...? Bai, bein! Onelan izan zan.

Bazter bateko kalean egoan etxe zaarra konponduteko lanetan asi zirean arotz eta igeltseru. Etxe zaar orrek iru mailla gora eukazan, iru pisu. Konpontze obra ori egiteko, aldamiño antzekoak edo, ipintekotan asi zirean. Ipintekotan diñot, ganoraz asi ez zirealako. Zapatua zan egur eta ol batzuk zelán alan orma kontrán erdi ipiñi ebezanean. Egur eta ol banaken auzo antzean, teillatu apurtuko aga ustelak be agiri egozan, kaletik ikusteko moduan.

Biaramonean domekea, eta eguerdi inguruan, kalean naikoa lagun ebillenean, mutiko batzuk, atetako atea edegita egon be ta, goruntz joan zirean, an goian zer ikusiko. Mutikook, zirti-zarta eta triski-traska, teillatu zulatuaren ganean agertu zirean. Kalean egozanak konturatu, eta arrituta egozan eta bildurrez.

—Mutillak! Geldi or! Alde ortik atzeruntz! Bestela arriskuan sartuko zaree, arrisku andian...!

Mutikoak entzun ez entzun, an ebiltzan euren okerre-rietan. Eta orra! Aga zaar baten musturra ausi, eta mutiko bi ormatik beeruntz etozala, an egoan erdi aldamiño ganorabakoaren ol mee eta estu baten ganera jausi zirean.

Ikusleen bildurra eta izua! Mutillok errez jausiko dira, ol estu ori be, austen bajake. Orixe uste eban jenteak orduan.

Jentea jai eguneko jantziz egoan, alkarri begira eta goruntz begira.

—Bonberuen zera edo, bear izango litzateke.

—Bonberuak urrunegi dagoz.

—Orduan, gizon gazteren batek edo...

—Umeak igon dabe, baiña aldamiñoak ganora barik dagoz oraindiño, eta nor joango...

—Ba, zeozer egin bear ko da.

—Egin bear izango dogu, esan gura izan dozu, ezta? Baiña nok?

—Jai eguneko jantzita ez banengo!

—Aitzakia makala! Ene, mutillak dagozan olaren gradakada entzun dot. Ausi egingo da, eta...

Guztiak goruntz begira geratu zirean.

Eta uste ez ebena ikusi ebenean, arrituta eta bildurtuta jarri zirean. Teillatuaren musturrean, orma estuan, Lukas ankarkulo.

—Ene! Zer egin bear dau orrek?

—Ez dau orrek indarrrik mutikoei eusteko. Zer egin bear ete dau?

Barritsu guztiak ixildu egin zirean. Lukasek esku bate-gaz ormeari eldu, eta gorputza kanporuntz eta beeruntz oker oker eginda, mutillengana makurtu, aetariko bateri eskuturretik sendo oratu eta apurka apurka, baretasunez, goraiño jaso eban eta teillatuaren barruko aldean laga eban. Beingoan, beste mutikoa be, bardin bardin jaso eban.

—Orrelakorik...! Beste barbarik ez zan entzun inguru aretan.

Emakume batek geitu eban:

—Autsak daukaz gazte orrek! Eta, nun orrelako indarririk?

—Bear dan lekuan —erantzun eutsan gizon zaar batek.

Jazoera ori zabal izan zan errian eta baita auzoetan be. Lukasek be, orduantxe azaldu ebalako bere nortasun berezia. Apala ta borondate onekoa, koipekeri bako gizona, sari billa ez kargu billa iñoiz ibilli ez zana. Lukas Ulegorria!

Andik gorakoan, estimadu izan eben erriko guztiak, eta batez be mutikoak euren salbatzailetzat artu ebelako.

EUSEBIO ERKIAGA

NAPARROAREN AUZIA

Naparroaren Auzia gaurko egunez edo, gaurko egoeran, oso zaila ikusten dot nik beñipen, ba, nire ustez, gureganatu bearrean, uxatzen gabiltzazala dirudi, ez dogu zuzendu bear dan lez edo, ez dogu jakin, bere garaian napartarrei, bear dan lez adierazten *euzko abertzaletasuna edo euzko napartasuna*.

Euzko napartasunaren gaia, zoritxarrez, oraingoz, galduta daukagu ta, orain arte egin dogun lan guztia, nire ustez, alperreko lana izan dala, ba, Ondarroa'ko esaera dan lez, matsak batuta dagoz alderdiarentzat, esan daigun, napar euzkaldun usaiñekoak, *alderdikide* gitxi dagozalako; ostera, ezker alderdiko "*euzkal*" edo euzko giroaz agertzen diran alderdiak, HB-EMK-EE ta, abarrak, bere notintzak daukez beñik beñi.

* * *

Oneik, geienok legez, Euzko Alderdi'koak izan bear ziran, ez ba'litz egon ezker "*progre*" girorik, baña zoritxarrez, ezkerak, Franco'ren goraberan, indartuta, jo ta ke ibilli ziran lenengotik, euren alde eta olan, eurenganatu dabez gazte askoren eritxiak.

Jauntxokeritasunaren azkenak, komunistak, oso ondo dakie eurenganako asmoak oñarritzen. Ez dira gu, askatasun-zaleok lez baketasunekoak.

Portugal'en, klabelin gorria ta eskeintza goxoakin, estu ta larritasun baten egon zan garai baten ango askatasunean, ez eben lortu edo ez eben euki Fidel Kastro'k eta Daniel Ortega'k euki eben aukerarik.

Europa ontan ez da aini errez, Kuba, Nikaragua, eta, bear bada, Txile, Paraguai ta gitxien uste dogun Amerika'ko aberriren baten lez komunismoa jabetzea.

Ezkerak, ondo baño obeto dakigun lez, "socialismo" a eskatzen dabe baña, ez dabe argitaratzen ze motatako "socialismo" a, gero, euren azpi-jan guzurtsuagaz edo zentzungabekeriagaz, bateko "independentzia", askatasuna, zapalkuntza, lankidetasuna, txirotasuna ta ain negargarrizko illeta tamalgarriak, tinkotasun bako garundunak, ezkertera, errez-errez joten dabez, kontun jausi barik, ezkerar agintaritzta edo ezkerak zapaltzen daben lekuan, bedarik bere ez dala azten.

Ezkerarren alegin guztia, erri armatua ta erri burruka izaten dan lez, notintzak eta ongiroak ez dauke garrantzirik.

Eskerrak jaunari, emen Bizkaia'n sabindartasuna, nai-ko oñarrituta dagon lez, ezkerak ez dau artu bear dan añako indarrak.

Naparruko auzia ba, ez dogu jakin aukeratzen bear dan lez, gure burukideak, bildur egon ziran batez be lenengo auteskudetan. Uste eben, naparrun, ez egoala zereginik

edo...!! dana dala, P.N.V. alkatu zan EE-ESEI- ta PT'kin, ezkerar amorrotuak.

Euzko Alderdi Jeltzale'ak, Franco'ren aurka, gogor be gogor jokatu eban, Erriak, Alderdia ez eban ezagutzen JEL edo Euzko Alderdi Jeltzale lez, baizik PNV lez ezaguna zan, dana zan ba J. A. Agirre ta bere Euzko Jaurlaritzan bitarteko PNV.

Euzko Alderdi edo JEL'kideok, ezker alderditik, ez daukagu zer egiñik, alde ortatik ez daukagu autarkirik eta orregaitik, zer dala ta aurrez-aurre ez gara jarkintzen?

Gure autarkiak, eliztarren bitarteko autarkiak daukagu, ortan ez dago zalantzarik, argi esanda, gure indarra, eskumako aldetik daukagu eta ezkerari ez jarkiaz bear dan lez, gure kalteko nortasun ganakoa da.

Auxe berberau ikusten dot nik napartarren artean. Lurralde ortan, ezker musturreraño sartuta dago, leku guztietan, batez bere ikastoletan, sasi andereñoz beteta, alderdiari batere ongarririk egiten ez dausana.

Naparroan, aurrez-aurre, eliztar autarkiaren billa joan bear dogu, jaungoikuaren izena aolkatuaz, ezkerakin artu-emonik euki barik, ortik ez daukagulako gauza onik.

Alegindu gaitzen ba sabindartasuna batez be Napar lurraldean, oñarritzen.

GORRI

SALTAMATXINGOAK

Pototo alkate egin eben ezker, turista amorratua biurtu jaku. Ikusita ikasten da. Bere ibilleratan jo dau Australiaraiño. Oto aspalditik joana zan ara azukre-kañaberak ebagitera, orrek diru asko ematen eban-eta.

Alkar jo dabe lagun zaarrak. Pototo beti izan da aundinaikoa:

—Aizak, Oto, animali orreik zer dozak?

—Orreik? Beiak, gizona, nongo mundutik ator.

—Orain gure errikoak oneik lako bi dozak.

—Zer egin dozue, ba, nik andik alde egin ezker?

—Ormonak eta janari osotuak eta deminiokeri guztiak erabiltzen jabezak ganadua janaritzeko. Eta, orreik, zer dozak?

—Zoratu egin az ala? Orreik, ardiak.

—Gure errikoak oneik lakoak bi dozak orain. Iru aldiz be bai, aundiagoak. Inguru artan kanguroak ebiltzen saltoka larraiñetan.

—Eta, pizti arrigarri oneik, zer dozak?

—Oneik...? Oneik zer diran...? Baita, baita... Zera dozak, erri onetako saltamatxingoak. Tok!

ANES

GUDARIEN GAUZAK

GUDARIEN GAUZAK

Gure gudako berrogetamar urte-urrena dala ta, gudan egon gintzazan geienok asi gitzazan gure artean sortu ziran gertaerak eta eginkizunak gogoratzen. Ondo gordeta gendubezan idazti, eskutitz, izparringi, aldizkari ta beste ingi edo paper arriskugarriak euren gorde lekutik atara ta len-miñez erabili ondoren, oldozkor geratu gintzazan. Zelako gomutak! Batzuk alaiak, beste batzuk goibel edo itunak, baña danak gomutagarri ta aztu-eziñak.

Aldi larri ta gogorretan gordeta egon ziran lekua egoki izan ez edo, ingi guztiak agertu yakuzan ustel eta alperrik galduta. Aldizkariak, adibidez, orriak aldatzean apurtu ta zatituta geratzen ziran geure atzamarretan. Bateron-bat, ala ere, ala-olako pasagarri egozan ondo irakurri ta erabiltzeko eran. Onetariko bat aurkitu neban eta irakurri ondoren, garrantzitsua zala usterik aldentuta itxi neban. Garrantzi aundikoa ez dakit izango ba'da, baña bai berezi ta bakana. Guda aldietan janari edo elikaturari buruz izaten diran estutasunak eta larrialdiak adierazten dauskuz.

Jakiña da, ta gudan egon gintzazanok ondo dakigu oar-ikasiaz, urritu egiten dirala mota guztietako elikaturak. Geroago egongo dan bildurrez, bear dan baño geiago gorde; gende geiago mendietan izkilluagaz eta gitxiago ereintzeko; kanpotik ekartzeko eragozpenak edo... azkenean orixe gertatzen da: zer jan gitxi ta nork jan asko. Gauzak olan izan ezkerok, ez da arritzekoa danak ibili gendizan an emenka batetik bestera, zer jan billa. Gosea ugari: or zan untzea.

Itxaso aldetik erasoaldiak gelditu ta gero, guda tokiak Ondarru eta Lekeitio'n, aurrez-aurre geratu ziran: frankotarrak Ondarru'n eta gudariak Lekeitio aldi. Guda-oñak ez ziran urrun bata bestetik. Naiko urbil egozan. Oituka itz egin ezkerok, alkar ulertzeko beste. Noizean bein itzaldiak egiten gendubezan, alde bietatik, astokeri itzalak alkar esanaz. Itzaldiak amaitzean, geyenean tiroka ekintzen giñian gure asarrea agertzeko ta or geratzen ziran gure zalaparta guztiak.

Anakabe, Itola, Asterrika... or egozan gure guda-oñak. Baserri edo auzo txikiak baña politak eta euzkeldun utsak. Gudari ta frankotarren guda-oña erdian, basetxe bat egoan. Jakiña, an egon ezin eta anka egin bear izan ziran etxe atako biztanteak. Gauza guztiak artu, ta or doaz burdin txirrinlari bategaz, asto, bei, idi ta enparauko abereak atzetik doazala. Tamalgarría! Baña olakuak izaten dira guden ondoreak.

Baserritarrak joan ziran euren basetxetik eta baita al izan eben gauza guztiak eruan ere, baña an geratu ziran

etxea ta bere inguruko soloak, ondo erein eta gero. Euren lana ta izerdia be, an itzi bear.

Solo artean ba egoan arto-alor eder bat. Egunak joan eta egunak etorri, azaroan ereindako arto aziak eldu, garatu, ta agiri ziran izugarriko artaburuak. Uztaroa eldu ta ez egoan iñor batzeko. Benetan tamalgarría zan a ikustea dana alperrik galtzen, batez bere gose gorri aldi atan.

Bein batean, gudari talde batek erabagi au artu genduban: Gu joango gara artaburuak artzera. Esan eta egin. Illunkera batean, iru gudari alkartu giñean gure ekintza aurrera eroateko asmoz. Asmakizuma ondo antolatu bear da ekin baño lenago, iñolako eragozpen barik lortzeko. Lenengoz, bear diran baimenaz, zain-aldi egozan gudariei adierazo gure asmoa zeatz eta meatz. Guda oñetatik kanpora joango garala artaburuka ta erne egoteko, gu biurtzerakoan aintzakotzat artu ta ez arerioarekin nastu. Ez egizue uts egin, kontuz! Beriala ados izan gintzazan. Illuntzean illun-illun egin baño lentxuago, gertu giñean. Suizkillua artu sorbaldan, bada-ezpadan, saku bana be bai artaburuak sartzeko, ta' guda oña triskatu ondoren burdin saria igaro, ta or goaz aldatz bera astiro ta isil-isilik, iñolako zarata egin barik. Noizean bein gelditu, inguruko basterrak begiratzuz iñor ete dan bildurrez ta barriro aurrera. Olako beste ekiñaldi batzuk egin ondoren, eldu giñean solora. Barriro begiraldi bizi bat egin, inguruan iñor ete dan guri zain edo... eta kezkatu ta arduratsu batu genduzan artaburuak sakuak betetzeko aña. Beriala joan gintzazan gorantza bizkor. Zuiskillua sorbaldan eta sakua bizkarrían, ez dira egokiak aldatz gora joateko. Izerdi batean eta arnas-estuka gendorzan. Guda oñara eldutakoan gelditze txiki bat egin geban, zain-aldi egozan gudariak geukin konturatu daitezean. Oiezko diran itz-izkutu edo ezau-garriak esan eta igaro gintzazan gure aldera. Elburuba bete genduban.

Txabolara eroan genduzan artaburuak eta an garandu. Arto sakukada polita lotu geban. Baña zelan etxera eroan?

Lenago aitatu dogu guda aldiko elikatura-urritasunagaitik zelan ibiltzen gintzazan. Ba urritasun au dala-ta, debekatuta izaten da bizibide bear bearrezkoak diran gauzak aldatzea edo leku batetik bestera eroatea, biar dan baimena barik. Baimena, ba, ezinbestekoa zan. Baña nola lortu? Emen daukaguzan agerkarian, ikusi al dozuez emon genduzan pausuak. Lenengo Gualoroan edo Batalloian eta gero Lekeitio'ko Udaletxean.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER
Mungia Godalorokua

ANDRA BILBOTAR BAT MIXIOLARI ETIOPIA'N

Gose ta guda artean bizi izan da andra gazte bat, an Etiopia'ko lurraldean.

—Baiña, Begoña, zer dala-ta etorri jatzun asmoa bizi- ziera ain arriskutsua artuteko?

—Bizitza onetara eragin eustan, gizadiaren zoritxarrak arindunaiak, eta gaur Etiopia dalako mundu zabalean Laterri minduenetariko bat bere gose etenbakoagaitik, lurraren legortek eraginda ta burruka edo sasi-gudak jarraian dauzalako.

Neure egite, jarraibide ta laguntzaz arinduten ba'dira apurtxu bat ango ezbear ta zoritxar ezin sinistu aiñakoak, asko pozuko nintzake.

* * *

Oar-ikasi, ezperientzi, gogorra ta oñaze biziak Etiopia Laterrian, legorte ondorenagaz gero ta geiago eremu biur- tuta, aren bizitzan aztarna ta lorratzak itzi dabez.

Bere begiratze ta berba-neurriak dirdiratu ta adieraz- ten dabe barruan daroana aldi laburrean esatearen billa- dabilena.

Trigay'ko lur-jabetuagaz eta, Eritrea'gaz mugalde dau- ken-"gosearen lurralde biak", bearraldi gogorrena geixo- tasun ta sasi-gudaren ondorenak agertzen dabez euren gorputz argal ta arpegi baltzitian.

Bera da ikusle ta autorlari egunerokoa, uzta txikia agortu ta amaitzen yakonean bedar-susterrak jan bear dauazan erriarena: gizaldra geixoak norberaren soñekoari oratuten dautsenak erriarteko erakunde onegilleak bialdu daben zeozer bat eskatzen.

* * *

Legortearen azken urte bi oneitan gose ikaragarria zabaldu da. Uzta batzen dabenean gizaldrak zortzi ilebeta- rako daukie janaria. Urteko lau illabete gaiñerazko aldian india-ikoak bakarrik jaten dabez.

Gero, beste asko Egoaldetik datoz 80 edo 100 kilome- tru eginda. Onei urtean zear baturiko uztak iru illebeta, irauten dautse ta gero erri-aldaketa egin bear dabe eskean edo lurra atzamarrakaz atzkortuten suster txiki batzuk atara dagiezan.

Lat-ontzia eskuan-eskuak zaurituta daukiez- aita ta semeak ama ta alabak egun osoan diardue lurpetik atara- ten sustrai orreik. Illebeta baiño geiagotan zear eztaukie besterik jateko.

* * *

—Orrelango ikuspegi negargarriak minduko zindue- zan, Begoña, ez da!

—Bai olantxe da. Larritasunik estuena eziñaren ta apalkuntza illunaren egoera da. Niri kaleetan banaka naiz taldeka belaunikotu jataz laguntza eskatzen eta niri gogor egiten yat, ni kale-zear nabillen bitartean, edozein bazta- rretatik urten daitezela, oratu soñekotik ta dingillizka gera- tu edo belaunikotu. Nik ori ezin dot jasan; augaitik, lengo urtean gaisotegi edo klinikara joateko oinez bost minutuko bidea egin bearrean berebilla artuten neban.

* * *

Begoña'gaz batera bost mixiolari lau Laterri desbar- diñekok bear egiten daben lekua lurgiñen lurraldea da Eri- trea'ko sasi-gudaren eskuetan dagoana, ta askotan bertara Gubernaren Gudalosteak sarraldiak egiten dauz. Beraz lurralde zoritxarreko bat ema-loikeri asko ta andra eskon- ausiak deukozana. Eurok ez dauke beste langutzarik guk emon, giñeyoena baiño.

* * *

Ezkerrak Erriarte'tik yatorkuzan laguntza-soropideari, amaika mille sendi-famili dira laguntza au artzen dabenak. Eurok egiten dabe gitxi-gora-bera berrogetamar mille notin illero datozenak esne, orio ta garau zakutoak eroa- teko.

—Baiña guk entzuten dogu askotan, gose-egunetan batuten doguna, eztala elduten bere jabegaiakana.

Begoña'k ekin eta ekin egiten dau:—Ez, ori ezta egia. Edozeiñek bialdu leikezan janariak elduten dira ara Belgi- ka, Suezia, Ingalaterra, ta Noruega'ko egazkiñetan, ba- koitxa 24 upelkadagaz.

Yñarra'tar Bego'k ango izkuntza bi ikasi dauz: tri- guiña ta geez. Gure Euskerea langoak izango dira?... Ez neuntsan itandu.

Bere osasun-zereginetarako, eskolatzeko ta laguntzai- lle izateko ainbeste arazoetan oraintsu inglese ratu dauz Etiopia'ko izkuntzatik idazki batzuk.

—Azkenean, Iñarra, mesedez, esango deuskuzu zer izan zan zuretzat Etio pian oartu zenduan garrantziz- koena?

—Zalantxa barik diñotsue an emoten daben abegi, arrera ona. Txiro baten etxera elduten zara ta biotz ikaraz ikusten dozu bakoitxak daukona dana banaduten. Bada- kizue ez daukiela ezer, alan be, txiroen artean eskuetara jatorkena bananduten dabe; euren etxe-txabolako atea joten dauan edozeñegaz dauken guztia zati-banatzen dabe. Olantxe egiten eben lenengo Kristiñauak, Aposto- luen Egiñak diñoskuenez.

JAINKOARI ESKARRAK

JAINKOARI ESKARRAK

Aita Rhaner maitia: Arrotxu sentitzen naz zuri idatzi al izatearren, batez be aldi azkenetan (esaterako, zelan edo alan Eleizearen kondaira jarraitzen dodanetik edo teologia ikasten dodanetik), zutzaz eta zure gauzai buruz Eleizarako ta kristiñauentzak zuk daukazun garrantzia ikusi dodalako. Augaitik poz andia artu neban zuk ikustaldia egin euskuzunean ta Eukaristia gugaz ospatu gura izan zenduanean. Eta izan be zerbait berarizkoa dago zeugaz alkartzen nauana: neu naz zeuk Opera'rako sarrera-xtartel bategaz poztu zenduan mutikoa. Biotzez eskarrak emon gura neuskizuz.

Gure artean ni sakonez ta gogoz sartu nazan languntaldeak gizarte-lanean diardu. An dagidana bakana da, zaarren etxeko bat zaindu besterik ez.

Niretzat zaarrakaz alkar-ikuste au eupada andi bat da, orain arte nagusiakaz ozta-ozta euki izan nituen artu-emonak (nire aitaita-amamak urtero iru bidar ikusten dodaz). Artu-emon onek eragiña ta zeregiña emon daust urte osoan zear: sarri-askotan biotz-berogarri, eragite gogarteko eta (sarriago ondiño) itaunduteko neure buruari; niretzako izan da ainbat gauzaren barruko lenengo eza-guerea. Lenengotan ara joan nintzan idealismuaren ameskeriz beteta notin arei eroan gura neutsezan desbardintasuna, aldakuntza, poza, ganora, adore, kemena; baifia nire gurari ameskeri biotz-beroak laster amaitau zirean, an artuten zan arnasea bildurgarriz goiberaldikoa zalako. jDanak egozan ain odol-bako!... Eta eurai irribarre eragiteko alegiñak egin arren, eurak oztasun andiz, ardura barik begiratzen ninduen. Bizi-toki osoa izenbako baltzu itzal bat da, an norbera bakoitxak milla notin edo lagunene arteko zerbaki bakan bat aurkituta sentidu bear dau.

Urte bat dala, laurogei inguru urteko andra zar bat jagoten diardut; ia beti ogean dago berna biak elbarrituta dago-ta. Alan eta guztiz be, bere eran, aretoko ariñetarikoa bat da. Asikeran, etsipen ta utsaldia emoten eustan aren jokabidea nigaz nire ikustaldia beragana gitxitzat eukala begiratzuz. Bere aurk-ekintza (erreakziñoa) ta jarduera, gogoanbearra ta ozkeria ta ardurabagea artean egoten zan. Baiña zenbat geiago luzeten zan gure alkar-ikustea, ainbat sakonagoak egiten ziran gure artu-emonak, eta burura sartzen yatan bere mingoztasuna (eta bearbada besteena be) ba eukan zer-ikusirik bizi-toki erruki-bageaz baita bere zarzaroak, eta berezkiro bere miñ-oñazeak sarritan neurri gañezko andiak. Diñogun egoera saminkorra eztabaida askoen arrazoia zan, sarritan umekerizkoak, euren artean. Ba-egozan geisoak zortzi urte zirala etzunda batzuk besteen alboan berba egin barik usteon-eza zala-ta, ain zuzen be auren mingoztasunaren ondorena inguruko gauzen egundoko gogorik eza agertuz.

Aita LETONA'k euskeratua
(Jarraituko dau)

LARRIALDIA

Urteak aurrera joan eta gorpuza makaltzen danean, atsegiñoago izaten da oiñez baiño, zaldiz. Gaur eguneko zaldiak berebillak dira, automobilak.

Otok ez eban berebillik erosteko aifia diru; bere biotzeko Pototok, ordea, an eukan estreñatu barria, tapizatua eta gorria. Motarik gabe, garbi garbia; izpillua bera baiño garbiagoa.

Jai-arratsalde artan, Beizaman Pototok motor bat ikusi bear ebala eta, dei egin eutson Oto'ri, berarekin ibillaldia egiteko.

—Atsegin izango jat.

—Orduan, iruretarako prest egon.

Oto garritik gogortzen asita egoan eta lokarri bako botak erabilten ebazan oiñetarako; aldamenetan gomak izaten dituen oiatarikoak, korapillo barik jantzi eta kentzeko moduan.

Apain-apain jantzi zan ibillaldirako.

* * *

Beizama an jagok, joan da bertan; baiña, ara eltzeko ordu ta'ardi luzetxoak pasa zituen bidean. Pototo sartu zan kamiñotik alde zegoan bidetxurretik errotara joateko, motorra ikustearren. Bitartean Oto gizajoa preso automobil-barruan. Bai ba, Pototok bere aldeko atea giltzaz itxi eban eta Otok, barriz, bere aldekoa idigitzea asmau ezin.

Asieran Oto gustora egoan barru artan, patxara ederrean; baiña, patxara onenean egonda be, luze gertatu ezkerro, aspertu; batez be txixa-larriak emoten ba'dau.

—Zer egin bear dot nik orain...? Automobilla platera baiño garbiago eta leioak altu... Zer egin bear dot...!

Eutsi eutson larriari, izardi otzak emon arteko guztian. Lertzeko zorian ikusten eban bere burua. Azkenerako, orratio, asmatu eban zelan egin. Eskubiko oiñetakoa kendu, bertan egin eta leiotik kanpora bota. A zer lasaitasuna barruan...!

Gero esango dabe Oto argi gabeko gizona dala...!

ANES

BARREKA

ASTITSU

DESFASADOAK ETA BIBOTEAK

—Orreik dozak "desfasados". Ez jabek Batuarik erabilten-da.

—Euskaraz ari diranei esateko itza al dok ori? Esan egik ori euskeraz. Oiek "desfasados" eta i fasean sartzeko oraindik.

—"Desfasados" zer dan edozeiñek ezagutzen jok.

—Erdaldunak baietz esatera noioak; baiña, ez jakiat erdaldunak eurak ere "desfasados" zer dan ulertzen daben...

—Ezetz? Des-fasados, fasetik igaroak. Orra gauza garbia.

—Eta, ze fase dok ori? Illargiak be bere faseak eta bere aurpegiak ba jaukazak: ilgora, ilbera, illargi barria, illargi betea eta tarteko beste guztiak. Noiz jagok illargia bere des-fasean...?

—Nik ori ez jakiat; baiña, persona bat "desfasada" noiz dagoen, ori bai bajakiat.

—Ori topikoren bat izango dok.

—Zer topiko gero! Des-fasados, fasetik kanpora.

—Modatik kanpora, dok? Eta ire biboteak zer dozak "fasados" ala "desfasados"?

—Ni "fasean" nago.

—Ilgora ala ilberan...? Dlargi barrian ala illargi be-tean...? Orain ogeita amar urtetik gora, geure gurasoak izugarritzko ule-matasak zituen sudurpean... Bizarra kentzeko tresna barriak sortu ziranean, bibotedunak "desfasados" gelditu ituan, muturrak garbi. Eta orain ogeita amar urtetik gora bere fasetik igaroak al dozak orain fase-dunak...?

—Zergaitik ez...?

—Ilberan egozalako...? Zuek lez pentsatzen ez dauan guztiak dozak zuentzako "desfasados". "Faseak" eta modak sortu orduko aldatzen dozak. Moda-aparretan ibil-tea dok norberentzat egokia norbere burua agertzeko eta illargiaren antzera gora ta beera ibilteko... Orretarako oiñarri gitxi bear da.

—Zuek zaree oiñarri bakoak. Oiñarri utsekoak.

—Zuek, barriz, "fase" billa atzeraka joan zaree eta gizonak bere pentsakeran oiñarria bear jok eta ez bakarrik modan ibiltzeko asmoa. Fundamentu apur bat, edo funtsa "fasadoak" diñoanez, oiñarri lez... Nere amonak, sudur-pean biboteak ezezik, ba-eban funtsa ere bere kolkoan eta, badakik zer esaten eban...?

—Niri ire amonaren esanak ardurarik ez jaustek sor-tzen.

—Ala ere esango duat zer esaten eban: modak eta "fa-seak", saku zaar bat dirala, goitik lez azpitik be zuloa daukana: azpitik ateratako trapaak goitik sartu. Orra zer dan modan eta "fasean" egotea. Zuek orixe egin dozue: "des-fasatuta" egozan trapaak azpitik atera eta gaiñean ipiñi eta ori onartzen ez dauan guztia "desfasado" lez jo.

—Zuek ez dakizue gaurkotasunaren barririk. Arri biur-tutako dinosaurio batzuk besterik ez zarie.

—Soiñeko bat izan guztokoa eta illargiakin batera aldatzen ez ba'dozu, ori al "desfasados" izatea? Emakume gazteak aldatzen dabezan euren soiñekoak goizetik gabera emeretzi aldiz, sakela bete diru kostata, ordea.

—Zuekin izketan egitea alperriko lana dok, eta banoa.

—"Faseak" laister aldatzen dozak. Moda ez dok sekulan geldí egoten eta zuen fasea buelta ematen asia dok. Agur, agur eta bueltara arte.

+ + +

OTOTXOREN PROBLEMAK

Gaur urduri agertu da etxean Ototxo eta aita aldamen batera eroan ete ekin dautso:

—Aitaxo, aunditzen nago eta zure laguntza bear dot bizitzako zerari aurpegia emoteko.

—Bai, semetxo. Nundik asiko gera?

—Artatik asi.

—Lorak zelan sortzen diran...?

—Loren ardurarik ez dot.

—Erleak zelan ugaritzen diran...?

Erleen ezta asko gustatzen jat; baiña, erleen ardurarik ez dot.

—Zer dozu, ba?

—Nere korapilloa eta problemak latzagoak da.

—Bai...?

—Bai, orixe.

—Esan, esan...

—Zazpi urte bete dodaz eta nire jaietako betebearrak bost ogerlekogaz zelan nai dozu ondo betetea? Gutxienez amar bear dodaz.

ARRINDA'TAR ANES

AUR-EZIKETA (3)

Soiña bakarrik ez dau Juantxo-txikik; badau bere barruan bizia be eta ez edozelakoa. Ez azi-eragiten dautson zugaitzaren bizia bakarrik. Barre eragiten dautsoen begi urdin orreik ba-dabe besterik...

Zugaitza lez azi, abereak lez sentidu, aingeruak lez pentsau eta maitatu. Orra zenbat gauza. Orra Juantxo-txiki zurea: animalia eta aingerua, soiña eta gogoa, gorputza eta arima...

* + +

Soiña eta gogoa biak alkarregaz bat eginda bizi dira. Alkarrenganako eginda dagoz. Gogoa soiñaren leioetatik begira daukagu eta leio orreik sentsumenak dozuz. Gogoa, espiritua, arima, gorputzaren barruan sartuta dago eta kanpora urteteko soiñaren sentsumenak bear ditu. Orreik dira leioak.

Umearen leiorik zabalena bi oneik dozuz: begiak eta belarriak.

Esaera zaarrek diñonez: 'umeak zer ikusi, a ikasi'.

Ume jaiο-barriak, bere inguruko gauzak ezagutzeko, soiñaren azala dau leio bakarra. Beingoan, irigiko jakaz belarriak eta begiak.

+ + +

Ume jaiο-barriaren ezaguerari buruz, ona zer diñon Spoch jakintsuak:

—Si illebeta ezkerο ez leuke umeak bere gurasoen gelan lorik egin bear... Berak sentitzen dauzan gauzak urduri jartzen dabe umea... Itxarrik dagoanean jazoten jako ori; baiña, baita lo dagoela be.

Esan dodana garrantzi aundikoa dalako, barriro esango dautzuet, ez eukiteko umerik zuen gelan, alboan baiño. Umea ipinteko beste lekuri ez ba'daukazue, tartean esi edo bionbo bat egokitu...

* * *

Ikasteko, begiak irikitzea naikoa dau umeak, besterik gabe. Zure Juantxo-txikik zer ikusten dau bere inguruan? Etxea da bere ingurua, zer ikusten dau bere etxean? Gurasoen bizimoldetik zer onik aterako dau? Zer ikusi eta ikasiko dau bere etxean?

—Ez; baiña, gure Juantxo oso umea da...

ARRINDA'tar ANES

BIZKAIEREAREN ASTEA-1987

- Orrillaren 4'an, astelena:** Eusko-Jaurlaritzaren 50 urteak. ZUBIKARAI'tar Augustin'ek.
- Orrillaren 5'ean, asteartea:** Arrantzaleen oiturak Bizkaia'n, ERKOREKA'tar Josu Iñaki'k.
- Orrillaren 6'an, eguastena:** Euskal-liburuen eta aldizkarien argitalpenak gaur, LEGARRETA'tar Josu'k.
- Orrillaren 7'an, eguena:** Jaungoiko-Zale Taldearen kondaira laburra ta lanak. ONAINDIA'tar Santi'k.
- Orrillaren 8'an, barikua:** GERNIKA SUTAN (50 urte). AURRE-APRAIZ'tar Bahlendin'ek.

ORDUA: ZORTZIRETAN

Colón de Larredategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.